

Derrigorrezko bigarren hizkuntza

ERROTA**MATERIALAK:**

Bideoa, Zamakola errota:
<https://www.youtube.com/watch?v=xirHASqm89o>

HELBURUAK:

- Energia lortzeko eredu garbi eta berriztagarria ikertzea eta erakustea
- Klima beroketaren aurrean, naturaren ustiaketa jasagarria ahalbideratzen duen eredu bat aztertzea
- Ondare kulturalaz jabetzea eta ikasitakoa azaltzea
- Tokiko kontsumo jasagarri eredu bat ezagutzea eta ondorioak ateratzea

LANDUTAKO GAITASUNA:

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura
- Ikasten ikasi
- Hizkuntza-komunikazioa
- Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabili
- Gizartea eta herritartasuna



JARDUERAREN GARAPENA

Ur errota bat bisitatu eta bertan jasotako informazioa oinarri hartuta, diziplina arteko ariketa egitea proposatzen dugu.

Ariketa lau fasetan garatuko dugu:

1. DATU BILKETA –arlotu ezberdinetakoa–.

- **Teknologia:**
Energiaren eraldaketa, potentzia-zinetikoa, operadore teknologikoak (gurpil hidraulikoa, torloju amaigabea edo sinfina, transmisioa, eta abar).
- **Marrazketa:**
Zirriborro orokorra (erreka, antapara, kanala, errota...)
- **Hizkuntza:**
Errotaren hiztegi propioa, makinaria eta lanabesak eta nekazal ingurunearena



- **Gizartea:**
- Lehengo nekazal mundua; ekonomia eta lotutako ohiturak; auzolana, ospakizunak ...
- Zerealaren garrantzia eta erabilera, ohiturak
- **Natura:**
Naturaren ustiaketa jasagarria, energiaren lorpen garbia eta berriztagarria, uraren aprobetxamendua...
- **Matematika:**
Unitateak eta zenbakikuntza sistemak, errotarien kontatzeko sistema, eta abar.

2. LANKETA

Ikastetxean, datuak arloka landuko ditugu, arlo bakoitzari bere garrantzia emanez.

4. PROIEKTU KOMUNA

Ariketa amaitzeko errotari egindako bisita arloka landu ondoren, arlo guztiak batu eta proiektu bateratua abiatzea proposatzen dugu. Maketa dinamika izan liteke edota erakusketa bisita gidatuarekin.

ITURRIA: Ariketa, Arratia BHIko irakasle talde batek egindako diziplinarteko lana –Euskara, Natura eta Teknologia–.

3. PRODUKTUEN EKOIZPENA

- **Teknologia:**
Maketa bat, bisitatu dugun errota erreproduzitzen.
- **Marrazketa:**
Bisitatuako errotaren planoak eta detaileak.
- **Hizkuntza:**
Elementu nagusiak idatziz edo grafikoz azalduko dituen posterra.
- **Gizartea:**
Ondorio nagusien txostena, PPT formatuan (aukera badago prezi moduko beste formaturen bat erabiltzea).
- **Matematika:**
Erregai fosiletatik eratorritako energiaren eta errotan lortutakoaren arteko alderaketa egin: ondorioak, aukerak, eta abar. Saiatu unitateen arteko baliokidetasunak aztertzen.